

Eskimoaren mezua

Negua hurbiltzen ari da.
Karibuen belarra ez da gehiago ageri.

Amaño ardura oroitzen da Kautahuk bere seme
maiteaz,

hau aspalditik joana baita. Non ote dago orain ?

Ur bazterrera joaten da.
To, arraun puska bat !
Kautahuki biziki gustatzen zitzaion zuraren
zizelkatzea.

Zurean Kautahuken mezu bat badago idatzirik.
Amañok beharrietarainoko irria egiten du.

Auzoaren etxera badoa lasterka.

Mezuaren irakurtzera
entseatzen dira.
Kautahuken marrazkiak
arras sinpleak dira.
Hauxe idatzi du :

Lehenik bere arraunarekin abiatu da Kautahuk.
Horma xuriaren gainean ibili da.

Hartz xuri bat hurbildu zaio eta usnatu du.

Iziturik ere, Kautahukek ihes egin ahal izan du.

Itsasoan, itsas-xakur bat ikusi du.

Itsas-xakur ihizi luzea hasi da.

Oi ! Kayaka uzkaili da.
Kautahuk urera erori da.

Itsas-xakurraren bizkarrera igan da.

Itsas-xakurrak bi etxolen uhartera buruz
eraman du.

Kautahuk uhartera heldu da.
Itsas-joairak kayaka eta arraun hautsia
horra ekarri ditu.

Bere istorioa arraun puskan zizelkatu du

eta arraun berri bat egin.

Ondotik, Kautahukek
arraun puska zizelkatua itsasora bota du ;
kayaka erabiliko du
iglura itzultzeko
ilargi xuri izanen delarik...

Hau bidaia !

Amaño eta haren auzoa luzaz isilik egoten dira.

Ilargi beteak distiratzten du.

Kautahuk hor dago.

Amaiera